

# Ezpalak

GORKA BEREZIARTUA

## Alea poema liburua aurkeztu du Beñat Sarasolak

“TIRA, ez da ezer ulertzen ezta?” esan zuen Koldo Izagirrek Beñat Sarasolaren *Alea* liburuko aurreneko poema irakurtzen bukatzean. Izan ere, poeta donostiarrak irakurlearen inplikazioa eskatuko duen liburua osatu du. “Poztu egin naiz zaila dela esan didatenean” esan zuen Sarasolak. Bigarren lana du, 2007an argitaratutako *Kaxa huts bat* bezala Susarekin ikusi du argia, eta idazleak aurkezpenean azaldu zuenez, Bartzelonak markatutako lana da: han pentsatu du, han idatzi, han zuzendu. Ez zuen aurreko liburua errepikatu nahi, eta ez du egin, baina lana bukatuta bere “ADN literarioa” antzematen dela onartu zuen. Liburuarekin galdera batzuei erantzun nahi izan diela ere azaldu zuen: “Posible da berri-tzailea den zerbait idaztea? Bukatu al da abangoardia? Posible da politikoki eraldatzailea den proiektu bat erakitzea?”. Erantzunak, beharbada, *Alean*.

DANI BLANCO



**Joseba Gabilondok** irabazi du Erein saria *Apo-kalipsia guztioi erakutsia* ipuin liburuarekin. Liburuaren Egunerako kalean izango da Gabilondoren lan berria. Neolitotik abiatuta 2050. urteko Euskal Herriraino iristen dira Michiganen bizi den urretuarraren istorioak, umorea eta kritika politikoa uztartuz. Erein argialetxeak eta Donostiako Udalak bi urtetik behin antolatzen dituzte Erein eta Donostia Opera Prima sariak. Bigarren hori, idazle berriei zuzendua, Xabier Altubek jaso du, *Ibes lerroak* izeneko nobelari esker.

## Alice Cooper

Azkena Rock jaialdian izango da, aurtengo maiatzean. Rock gogorraren historian urrezko letraz idatzia dago AEBetako banda honen izena, besteak beste *Poison* edo *Billion dollar babies* kantei esker.

WIKIPEDIA



## Eskorbutoaren zenbait disko berrargitaratuko dituzte

SANTURTZIKO punk taldearen diskoak berrargitaratzea boladan dago: lehen maketa, *Jodiendolo todo*, berriz argitaratu ondoren, Bizkaiko arratoien *Las mas macabras de las vidas* eta *Demasiados enemigos* berrargitaratuko ditu apirilean Guns of Brixton zigiluak. Bi disko horiek dira Eskorbutoaren betiko taldekideek egindako azken bi lanak, 1988koa lehena, eta 1992koa bigarrena. Gainera, beste bi lan ere aurki izango dira salgai: *La otra cara del rock* zuzenekoa, eta *Eskorbuto al parlamento*, 1986ko kasetearen sei abestiak biltzen dituena.

**Richard Brooks** protagonista izango da Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 57. edizioan. Antolatzaileek Philadelphiako zuzendariari gorazarre egingo diote, haren filmen atzera-begirako zikloaren bidez. Frantziako zinemaren joera berriak ere aztergai izango dira Zinemaldian, *Kontrauhina: Frantziako zinema berriena* zikloaren baitan.

**Le Petit Théâtre de Pain** antzerki taldeak irabazi du IX. Donostia Antzerki Saria. *Juglarea, putxa eta eroa* antzezlanak “euskara eta euskara aldaeren erabilera” bultzatzeko egindako lana azpimarratu du epaimahaiak. Hegoaldeko batua, Iparraldekoa eta zuberera erabiltzen ditu taldeak antzelanean.

- **Bernardo Atxagak Garan:** «Hemengo heziketa dagoen bezala egonda, mirakulua litzateke norbait ez idazle, baizik eta irakurle ateratzea ere. (...) Hemen sekulako iruzur bat gertatzen da, irakurketaren ingurukoa, eskolan eta hezkuntzan».
- **Hasier Etxeberriak Alua Munda! blogean, Frantziar indarrean jarri den Hadopi legeaz:** «Ez dut sinesten Sarkozy egileak babestu nahian dabilenik. Horretarako badira bide hobeak errepresioa

baino. Deskarga pirata bakoitzean zenbat “kentzen” zaio sortzaileari? Zenbat industriako multinazional handiei? Esango nuke, kulturaren eta espektakuluen industriak hedapen eta kobratze bide berriak asmatzen ez dituen arte, kalapita hortxe egongo dela, erretenean sartzen ez baitago erraza egungo aukera digitala. Ala ez?».

- **Ainize Txopitea artistak Eibarko ...eta kitto! aldizkarian, Daniel Txopitea, bere aita zenaz:**

«Nire aita karisma handiko artista zen eta laguna niretzako. Bere galera goiztiarra oso kolpe gogorra izan zen, baina bere oroitzapen beroak edonora noala laguntzen dit. Existentzia handiko gizona zen, bere buruarekin batez ere, eta horregatik utzi du bere zigilua daukan lan-bilduma garrantzitsua. Amak eta nik erakusketak egiten jarraitzen dugu, eta bere ondarea erakusten galeria eta erakunde bitartez. Koadroetan zehar bera bizirik mantentzeko modu bat da».